



GORKA ARTOLA ALBERDI jaunak, Bergarako Udaleko alkateak, Udalaren izenean eta Udala ordezkatzuz.

JAVIER INDA ALTUNA jaunak, "Ibai-Arte" Arrasate Merkatal eta Zerbitzuen Elkartearen lehendakariak, erakunde horren izenean eta erakundea ordezkatzuz.

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz:

HAU ADIERAZI DUTE:

Merkataritza-sektoreak egitura-aldaketa sakonei egin behar die aurre, eta erronka nagusia kontsumitzaileen erosketa-ohitura berriei erantzuteko eraldatzea da. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta banaketa-bide berrien agerpen indartsua direla eta, beharrezkoa da estrategia berriak eta negozio-eredu berriak hartzea, sektorearen lehiakortasuna hobetzeko, eraldaketa digitalean eta jasangarritasunean oinarrituta.

COVID-19aren osasun-krisiaren osteko merkataritza-sektoreak duen egoerak, dauden gerren eragin ekonomikoak eta bizi dugun pixkanakako suspertze-fasean orokortutako ziurgabetasun ekonomikoak babesa eta bultzada behar dituzte jarduera berreskuratzeko eta merkataritza-sektorea biziberritzeko.

Ondorioz, txikizkako merkataritzak erronka askori egin behar die aurre, hala nola, eskaintza kontsumo-ohituren aldaketari eta kontsumitzaile berriei erantzungo dien eskariari egokitzea, negozio-ereduen hibridazioa, merkataritza-banaketa eta hiri-ereduak, online merkataritza, etab. Guzti honek ezinbesteko egiten du sektorea sakon eta azkar eraldatzea.

Eusko Jaurlaritzak Turismo eta Merkataritzako Plan Estrategiko berria dauka, epe luzerako estrategia plangintza jasotzen duena, 2030. Plan horren helburua, sektorearen eraldaketari, modernizazioari eta gaztetzeari erantzutea da, baita EAEko politika komertziala bultzatu behar duen gobernantza-eredua jorratu eta eguneratzea. Erronkei aurre egiteko ordea, erakundearteko elkarlana eta eragile publiko eta pribatu guztien lankidetzak behar da.

Beraz, Debagoienera Merkataritza Laguntzako Puntua izatea ezinbesteko da Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-enpresei laguntzeko aktibo nagusietako bat izanik, politika publikoak koordinatzeko eta dinamizatzeko, lankidetzak publiko-pribatua erraztuz. Bulegotik sektorearekin lotutako jarduerak behar bezala gauzatzeko aholkularitza eta trebetasuna eskainiko da; Sailaren politiken ahalegina merkataritza-sektorerantz bideratuko da, dinamizazioa eta sustapena sustatuz, kudeaketa-ereduak partekatuz eta espezializazioak, sektorekoak zein zonakoak eraginkortasunez estaliz; laguntza espezializatua emango da



merkataritza-banaketaren sektoreak dituen erronka berrien aurrean, merkataritzaren lehiakortasuna hobetzen eta denboran irauten lagunduko duten prozesuak sustatuz; etab. Horregatik, 2025eko uztailaren 1eko 138/2025 Dekretua ezagututa, Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea sortu eta Merkataritza Laguntzako Zenbitzuen Zorroa zehazten duena, Ibai-Artek, orain artean eskualderako egin duen bezala, 23. gunerako (Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Oñati) Merkataritza Laguntzako Puntua eskatuko du. Hitzarmen honekin Eusko Jaurlaritzaren 2030eko Turismo eta Merkataritzako Plan Estrategikoan jasotako erronkak aztertu eta aztertzea ahalbidetuko duten egiturak edukitzen lagunduko da, udalerriko edo eskualdeko errealitatearekin kontrastatzen lagunduko da eta merkataritza sektorearen lehiakortasuna hobetzeko irtenbideen estrategia egokiak bilatzen lagunduko da.

Bi aldeak ados izanik, eta ahaleginak batez ere inguruko txikizkako saltokien mesedetan bateratze aldera, bi erakundeek honako hau

HITZARTZEN DUTE:

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea, Merkataritza Laguntzako Puntuen funtzionamendurako hitzarmen bidez, langile kualifikatu batek merkataritza-banaketaren sektore osoari eta udalerriko elkarteari laguntza-zerbitzua ematea da generoaren, jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren ikuspegia kontuan izanda.

Bigarrena.- Alderdien konpromisoak

Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Ibai-Artek aurkeztutako Merkataritza Laguntzako Puntuaren eskaria babestea.
- Merkataritza Laguntzako Puntuaren teknikariarekin lankidetzan aritzea hitzarmenaren helburuak lortzeko.
- Hitzarmenaren xedea babestea, eskura dituen baliabideak erraztuz.
- Merkataritza Laguntzako Puntuarekin lan egitea merkataritza sektorerako onuragarri diren laguntza eta proiektuetan.

Ibai-Artek ordea, konpromiso hauek hartzen ditu:

- "Ibai-Arte" Arrasate Merkatal eta Zerbitzuen Elkarteak, 2025eko uztailaren 1eko DEKRETUAN jasota dagoen bezala 23. gunerako (Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Oñati) Merkataritza Laguntzako Puntua eskatzea.
- Dirulaguntza jaso den xederako erabiltzea eta aurkeztutako proiektua Bergaran ere gauzatzea, besteak beste: kontsumoa sustatzeko ekintzak burutzen laguntzea; eraldaketa digitalarekiko, berrikuntzarekiko eta kudeaketaren kalitatearekiko





sentsibilizazioa eta horrekin lotutako prozesuak bultzatzea; sektorea profesionalizatzeko formakuntza bultzatzea; hiri-eremuetan eta banaketa katean lankidetzaren prozesuak bultzatzea; udalerrietan eta/edo eskualdean hirugarren sektoreko estrategiak bultzatzea (ostalaritza, zerbitzuak, kultura, ondarea edo beste sektore batzuk); laguntzen eta diru-laguntzen zabalkundea egin eta eskaeretan laguntzea; gai desberdinen inguruko aholkularitza eta arreta zerbitzua ematea; sektorearentzat interesgarri den informazioa zabaltzea (araudi aldaketak, entitate desberdinen zerbitzu eta programak,...); merkealdi eta likidazioen inguruan informazioa zabaltzea eta behar denean tramitazioekin laguntzea; kontsumitzaileentzako balio erantsia sortzeko eta xede-publikoaren fideltasuna lortzeko ekintzak garatzea eta garapen jasangarriarekin eta/edo energia-efizientziarekin lotutako estrategiak ere garatzea, baita autokontsumorako eguzki-energia fotovoltaikoa ezartzea sustatzen duten Energia Komunitateak sustatzea; merkataritza mahaletan parte hartzea; ekintzailetzaren eta enpresa-transmisioaren arloko prozesuen jarraipena egin eta bultzatzea; Bedelkarrerik aholkularitza eta kudeaketarako laguntza eskaintzea; Bedelkarrerik urteko ekintza plana gauzatzen laguntzea; etab.

- c) Bergarako merkatariei zerbitzua doan ematea, udalerriko elkarteko kide izan edo ez.
- d) Bergarako elkarte bakarra den Bedelkarrerik zerbitzua ematea. Kasu honetan, Debagoieneko elkarten artean sinatutako hitzarmenean adostu bezala, Merkataritza Laguntzako Puntuaren arduradunaren kontratazio-kostu osagarria, Merkataritza Laguntzako Puntuaren laguntzetan ezarritako zenbatekoak estaltzen ez duena, elkarte guztien artean jarriko dute, kide kopuruaren arabera.
- e) Erabiltzaileek arreta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eta horiek erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da.
- f) Diru-laguntzaren indarraldi osoan, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- g) Otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak betetzea, batez ere, aukera eta tratu berdintasunari, genero-ikuspegia eta ekintza positiboa sartzeari, hizkuntza inklusiboa erabiltzeari eta datuak sexuaren arabera bereizteari dagokionez.

Hirugarrena.- Jarraipen batzordea

Bulegoak eskaintako zerbitzua baloratzeko, betetze-maila aztertzeko eta behar den kasutan berbideratzeko Merkataritza Laguntzako Puntuako teknikariak, Bergarako Udaleko Garapen Zerbitzuko teknikariaren eta Bedelkar Elkarteko Zuzendaritza batzordearen laguntzarekin egingo du jarraipena urtean zehar ospatzen diren bilera desberdinetan.

Gainera, gai bat lantzeko behar izanez gero aparteko bilerak egin ahal izango dira.



Laugarrena.- Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen hau 2025eko urriaren 1ean sartuko da indarrean eta urte beteko iraupena izango du, hau da, 2026ko irailaren 30a arte. Eusko Jaurlaritzarekin Debagoieneko Merkataritza Laguntzako Puntuaren Hitzarmenak dekretuan aipatu bezala, lau urtez jarraipena badu, hitzarmen honek ere jarraipena izango du.

Eta klausulek ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, agertutakoek hiru aletan izenpetu dute agiria



Gorka Artola Alberdik izenpetua
Bergarako Udala

Bergaran, 2025eko irailaren 5ean

18602447

R JAVIER

INDA (R:

G204068

64)

Javier Inda Altunak izenpetua
IBAI-ARTE Merkataritza Elkarte